

EUSKERA

KCANTÀ, eskualdeko hizkuntzen aldeko lehen musika proiektua, Saint-Pandelonen aurkeztuko da

Kontzertua · 2026ko uztailaren 17a · 21:00etan · Array Dou Sou etxaldea · Saint-Pandelon (Landak)

KCANTÀ eskualdeko eta hizkuntza ez-hegemonikoen aldeko lehen musika proiektua da. Disko berean bildu ditu korsikera, bretoieraz, okzitanieraz, katalanez, alsazieraz, galegoz, kreoleraz eta euskaraz kantatzen duten artistak, baita hizkuntza eta kultura aniztasunaren alde engaiatu diren gonbidatu berezi batzuk ere.

Proiektuan parte hartu dute, besteak beste, Francis Cabrel, Cali, Dan Ar Braz, Claire Keim, Itziar Ituño eta Leire Martinez artistek.

Egungo musika panoraman eskualdeko hizkuntzetan sortzen duten artistek duten ikusgarritasun eta aitortza eskasaren aurrean sortu zen ekimena. Anne Etchegoyen euskal kantariak bultzatu eta gidatu du proiektua, gure hizkuntza- eta musika-ondareen aberastasuna balioan jartzeko asmoz.

Universal Music zigiluarekin datorren irailean argitaratuko den diskoaren aurrestreinaldia Landetan izango da, 2026ko uztailaren 17an, Array Dou Sou etxalde paregabe.

Kontzertu berezi honetan, Anne Etchegoyenekin batera ariko dira:

Patxi Garat (Euskal Herria)

Matskat (Alsazia)

Valérie Louri (Martinika - kreolera)

Yvan Cujious (Okzitania)

Artistek beren kantuak eta zenbait moldaketa eskainiko dituzte, hainbat hizkuntzatan interpretatutako piezen bidez, bikote, hirukote, laukote, taldeko eta bakarkako formatuetan.

Hitzordu berezia izango da, uztailaren 17an, 21:00etan, Saint-Pandelongo Array Dou Sou etxaldean.

Informazioa

Emaila: otentikp64@gmail.com

Telefonoa: 06 32 44 64 25

Webgunea: www.anne-etchegoyen.com

Erreserbak

Grand Dax Turismo Bulegoa

Telefonoa: 05 58 56 86 86